

PRENTSA OHARRA

AMURRIOKO EKIPAMENDUEN PLAN ZUZENTZAILEAK UDAL ERAIKINAK OPTIMIZATZEKO OINARRIAK EZARRI DITU

- **Plana prestatzeko, alde zuzenetik diagnostikoa egin da, eta horren zutabeetako bat herritarren parte-hartzea izan da**

Amurrioren, 2022ko ekainaren 7an. Amurrioko udal-ekipamenduei buruzko azterketa eta entzute aktiboko urtebeteko lanaren ondoren, Udalak udalerriko eraikinetan beharrezkoak diren jarduketak gauzatzeko gida gisa balioko duen Udal Ekipamenduen Plan Zuzentzailea dauka.

Dokumentu horrek, udalerrian dauden eraikinak optimizatzeko gida gisa erabiliko diren jarraibide jasagarriak eta argiak biltzen ditu. Izan ere, herritarrei zerbitzuak emateko balioko dute, azterketa teknikoaren eta herritarren parte-hartzearen ondorioz ezarrita dagoen helburuarekin.

Planak 8 udal-eraikin optimizatzeko proposamenak jasotzen ditu. Horretarako, diagnostiko bikoitz, parte-hartzaile eta teknikoaren bitartez 35 eraikin edo instalazio sakon aztertu ondoren, plana irizpide orokor hauek ezarriz prestatu da:

1. Eraikinak eta erabilerak jarduera-poloen arabera taldekatzea
2. Ekipamenduak herritarren eskariari erantzuteko antolatzea
3. Espazioak hobeto egokitzea aurreikusitako erabileretara
4. Dauden eraikinak aprobetxatzea eta egokitzea (eraberritzeak eta mantentze-lanak)
5. Eraikin publikoetarako irisgarritasuna bermatzea
6. Ekipamenduak jasagarritasun-irizpideekin arrazionalizatzea.
7. Ekipamendu inklusiboak lortzea

“Planaren jarduketa-eremua ezarritako irizpideak kontuan hartuta mugatu da, eta bertatik kendu egin dira udal-titulartasunekoak ez diren eraikinak, eraikinekin bat datozen zerbitzuak dituztenak, hala nola Amurrio Antzokia edo pilotalekua, barneberrikuntzak behar arren, eta gaur egun dagoeneko plangintza dutenak.”, azaldu du Txerra Molinuevo Amurrioko alkateak.

Diagnostiko tekniko eta parte-hartzailea

Plana prestatzeko, aldez aurretik diagnostiko bat egin da. Diagnostiko horretan, herritarren parte-hartzea izan da oinarrietako bat: herritarrek 195 galdetegi entregatu dituzte, eta kultura-, kirol- eta zaintza-eragileekin bilerak, genero-ikuspegia ardatz hartutako elkarrizketak eta dibertsitate funtzionaletik egindako elkarrizketak burutu dira. Gainera, bilerak egin dira udal-arduradunekin eta Udaleko teknikariek.

Diagnostiko-prozesuaren ondoren sortutako proposamenak kirol- eta kultura-eragileen, eta udaleko arduradunen eta teknikarien kontrastea ere jaso du.

Planaren proposamenaren jarraibideak

Guztira, Udal Ekipamenduen Plan Zuzentzaileak 8 eraikin edo/eta instalazioren analisia eta jarduketarako proposamena jasotzen ditu: Kultur Etxea, La Casona, Liburutegia, El Refor, Zabaleko, Matias Landaburu, Villa Fe Eguneko zentroa, anbulatorio zaharra eta merkatu zaharra. Horiek aztertu ondoren, bakoitzerako zenbait jarraibide sortu dira.

Alde batetik, kultura-ekipamenduen sare bat sortzea aurreikusten da, Kultur Etxean, la La Casonan eta merkatu zaharrean oinarrituta. Horrela, herri hirigunean ludoteka berriak osatuko duen proiektatutako kultur sarea sortuko da. Horretarako, planak liburutegi berria merkatu zaharraren eraikinean egotea planteatzen du, programa zerbitzu osagarriekin osatuz, ikasketa-aretoekin, mediatekarekin eta KZgunearekin, besteak beste. La Casona eraldatzea ere aurreikusten da, lehen hainbat eraikinetan sakabanatuta zeuden udal-tailerrak hartzeko, eta Kultur Etxea eraldatzea, egungo mugak eta erabilerak kenduz, udalerriko kultur eragile bihurtzeko, auditorioa,

erakusketa-aretoa eta tamaina desberdinetako erabilera anitzeko aretoak egokituta, herritarren kultur eskaerak jasotzeko.

Ekipamenduen Planak Arte eszenikoen zentro bat sortzea ere jasotzen du. Horretarako aukeratutako eraikina orain hutsik dagoen anbulatorio zaharraren eraikina da, udalerrian oso ezarrita dagoen eta gaur egun instalazio egokirik ez duen adierazpen artistikoa hartzeko, arte eszenikoen zentroa martxan jartzeko, hain zuzen ere, eta horren barruan musika-eskola, dantza-eskola eta antzerki-taldea, elkarte erabiltzaile guztien artean sinergia sortuko duten instalazioak partekatuz eta interes kultural handiko adierazpen horiek bultzatuz.

Matias Landaburu zentroko eraikinean gaur egun erabiltzen ez den eremua ikastetxe gisa gaituko litzateke, planaren jarraibideen arabera, AEKren euskaltegiari une honetan Etxegoien, 15ean dagoen TANTAKA haurreskolaren irakaskuntza-eskaintza eta gaur egun Etxegoien, 19an dagoen Zaraobe Institutuaren gizarteratze-zikloa gehitzeko. Horrela, gaur egun sakabanatuta dauden udalaz kanpoko irakaskuntza-zerbitzuak eraikin bakarrean elkartuko egingo lirateke. Horrez gain, erabilera anitzeko gelak ere badaude, eta horiek espazioa udal-ikastaroetarako edo bestelako jardueretarako eskuragarri egotea erraztuko dute.

Bestalde, planak, helburu bikoitza izango lukeen Elkarten zentro bat sortzea ere jasotzen du: Rita Landazuri etxearen ekipamendua zerbitzuan jarri ondoren hutsik geratuko litzatekeen Villa Fe eraikina balioztatzea, eta horren bitartez udalerriko elkarte-mugimendu guztiarentzako kalitatezko espazioa egokitzea.

Kirolaren Etxea sortzea aurreikusten da, udalerriko kirol-klubek lokaletarako eta espazio komunetarako duten eskaerari lekua egiteko, kirola egiten duten pertsonen eta zaleen artean sinergia positiboak sortzeko. Horretarako, planak El Reforreko eskuineko hegala kirolaren etxerako birgaitzea proposatzen du, udalerriko klub guztientzat eskuragarri egongo diren lanerako, bileretarako eta batzarretarako eremuekin. Eskaintza gaur egun beste udal eraikin batzuetan dauden elkarteentzako lokalek osatuko lukete, Etxegoien kalekoek, besteak beste.



Azkenik, kultur elkarreentzako, jolas elkarreentzako eta kirol klubetarako tresneria, lanabesak eta abar biltegitzeko lokalen eskaintza osatzea proposatzen da, arlo horietan ohikoa den eskaria betez. Horretarako, ad hoc guneak prestatzea proposatzen da El Reforreko beheko solairuan, ezker aldean.

Informazio gehiago:

Maite González Bilbao

666 114 705

prentsa@amurrio.org